

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 84/2018 FORU DEKRETUA, ekainaren 26koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretua aldatzen da, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duena.**

**ZIOEN AZALPENA**

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren bidez, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onetsi zen. Foru dekretu horren bidez, sail horren egitura organikoa egokitu zen, aisialdi arloko erakundeak eta astialdiko prestakuntza-eskolak sustatzeko politikak Euskara eta Kulturako Foru Sailaren barruan biltzearen ondorioz. Horrela, sail hori laguntza-dekretu bi kudeatzerara igaro zen; laguntzok astialdiarekin lotuta dauden elkarreentzat dira, eta ordura arte Ahalduen Nagusiaren Kabineteak kudeatu zituen dekretu horiek; beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak solaskide bakarra du orain eremu horretan lanean diharduten elkarrekin.

Era berean, abaguneaz baliatu zen Kultura Zuzendaritza Nagusia birmoldatzeko, zelan eta Kultura Garatu eta Zabaltzeko Atala, batetik, eta Argitalpenen eta Kultura Jardueren Atala, bestetik, bat eginez; horrela, atal bakarra sortu zen, Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Atala; atal hori Kultur Ekintzako Zerbitzuaren mendean geratu zen, eta beraren bidez bideratzen dira orain argitalpenetarako eta kultura-jardueren zabalkunderako politika guztiak, bai Aldundiarenak berarenak, bai bestelako eragileek sustatutakoak.

Kultura Ondarearen Zerbitzuari dagokionez, haren mendean zeuden eraikinak mantentzeko eginkizunak berriro antolatu ziren, eta eginkizunok zuzenean jarri ziren zerbitzuko burutzaren mendean.

Azkenik, abagune honetaz baliatu zen Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Dekretutik Sailaren Kontratazio Mahaia kentzeko, eta arrazoia hau izan zen: Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera (foru dekretu horrek onetsi zuen Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua), Kontratazio Mahai Nagusi iraunkorra sortu zuen, betiere kontratazioa sustatzen duen organoaren jarduketa eta eginkizunen arloaren irizpidean datzalarik.

Une honetan, sailak eraikinak mantentzeko dituen eskumenak Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailean zentralizatzeko proiektuaren barruan, beharrezkoa da egitura organikoari buruzko erregelamendu hori aldatzea, arlo horri dagokionez.

Horren ondorioz, aldaketa bat egin behar da indarrean dagoen Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoaren erregelamenduan, sail horren menpe dauden eraikinak mantentzeko eskumena kentzeko.

Azaldutako guztiarengatik, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17.1.4 artikuluan ezarritakoaren babesean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2018 ekainaren 26ko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau



## XEDATZEN DUT:

**Artikulu bakarra. — Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretua aldatzea; haren bidez, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onetsi zen.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duena, honela aldatzen da:

Bat. 10. artikuluko h) letra honela idatzita geratzen da:

«h) Laneko arriskuen prebentzioaren eta lan-osasunaren arloan sail honetan eman beharreko xedapenak koordinatzea eta aplikatzea.»

Bi. 10. artikuluan, k) letra gehitzen da, eta honela geratzen da:

«k) Sailaren bulegoak kontserbatzeko eta mantentzeko neurriak hartzea, beste foru sail batzuek arlo horretan duten eskumena ahaztu barik.»

Hiru. 10. artikuluan, l) letra gehitzen da, eta honela geratzen da:

«l) Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailarekin harremanetan jartzea Sailaren instalazioen mantentzearekin zerikusia duten lanak kudeatzeko.»

Lau. 19. artikulua g) letra aldatzen da:

## XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

**Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — Indargabetutako xedapenak**

Indargabetuta geratzen dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkako xedapen guztiak.

## AZKEN XEDAPENAK

**Azken Xedapenetako Lehenengoa. — Erregelamenduz garatzeko gaikuntza**

Ahalmena ematen zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, foru dekretu honetan xedatutakoa garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea**

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 2018ko ekainaren 26an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ